

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOLINILLAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lizitazioa, landa finkak errentan emateko

Molinillako Kontzejuak, 2026ko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Molinillako Administrazio Batzarraren jabetzako ondare finka publikoak errentan emateko baldintza ekonomiko-administratiboen agiria onestea. Horren bidez, 55 finka publiko errentan emateko enkantea deitzen da. Finka horiek 0,01 eta 0,53 hektarea bitarteko azalera dute. Era berean, ENEEK Nekazaritza Ekologikoaren Kontrolerako Erakundean inskribatutako beste 5 finka ere eskainiko dira. Horiek 0,32 eta 1,55 hektarea bitarteko azalera dute.

Kontratuaren iraupena: 5 urte.

Enkanterako lizitazio oinarria: finka bakoitzerako klausula ekonomiko-administratiboen agirian adierazten dena.

Eskaintzak aurkeztea: kontzeju etxean, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik 13 egun igaro baino lehen.

Prozedura eta esleitzeko era: prozedura irekiaren bidez egingo da, enkante bidez, eta proposamenak baloratzeko irizpide bakarra erabiliko da: prezioa.

Errenta ordaintzea: Lehenengo ekitaldia, behin betiko esleipena sinatzen denean; gainerako ekitaldiak, irailaren 30ean, aldez aurretik.

Baldintza ekonomiko-administratiboen agiria jendaurrean jartzea: administrazio batzarraren iragarki taulan.

Gutun azalak irekitzea: proposamenak aurkezteko epea amaitu eta 5 egun baliodun, kontzeju aretoan, 10:00etan. Molinilla, 2026ko uztailaren 3a.

Molinilla, 3 de julio de 2026

Lehendakaria

ANGEL FERNÁNDEZ DE LABASTIDA AGUAYO